



137. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2019ko urriaren 31an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak:

Alex Oriden Antia, jna.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Maider Alberdi Yeregui, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Marina Bidasoro Arocena, and.
Jose María Azkue Castillo, jna.
Maddi Aldalur Osa, and.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Oier Korta Esnal, jna.
M. Cruz Alvarez Aparicio and
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.
Cristina Vicente Iciar, and.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Iker Mardaras Arrieta, jna.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre

| | | |
|---|---|--|
| Dokumentu kod./Cod. Documento | 2019IAKU0012-A19/8815 | |
| Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAA46DNT.D6ub 000.0081.AAAA46DN.T.D6ub | |



EGUNEKO AZTERGAIAK

- 1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:**
 (135. zbkia – 2019.10.10
 136. zbkia – 2019.10.15)

Onartutzat geratzen dira aktak.

2.- OGASUNA.-

2.1.- IRIZPENA:

2.1.1.- 2019ko 19. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

“Konpromiso kreditu bidezko kreditu aldaketaren 2019-KALD-0000021 zenbakidun espedienteak onartzeko proposamena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu konpromiso modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak 22. artikuluan.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2019ko urriaren 24ean ospatzen den batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu konpromiso modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

.- 2020 urterako konpromiso-kredituak sortzea:
 5 0100.622.173.00.02 (Inbertsioak Santiagoko hondartzan) : 280.000,00.
 Finantzaketa, aurrezki garbia.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

| | | |
|---|---|--|
| Dokumentu kod./Cod. Documento | 2019IAKU0012-A19/8815 | |
| Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAA46DNT.D6ub 000.0081.AAAA46DN.T.D6ub | |



Zumaia Udala Aldeko botoak: 4 (3 EH BILDU, 1 EAJ/PNV)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

2019IAKU0012-A19/8815

Zumaian, 2019ko urriaren 24ean

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Aldeko botoak: 17 boto (7 EAJ-PNV, 9 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. 2019ko 19. KREDITU ALDAKETA ONARTZEN DA.

3.- PROPOSAMENA.-

EH BILDU, UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKOA: HONDARTZETAKO SOROSPEN ZERBITZUA

Hondartzetako sorospen zerbitzuak Gipuzkoako Foru aldundiak kudeatzea eskatzeko MOZIOA

Jakina da Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak, beste zenbait zerbitzurekin batera, udalek ematen eta ordaintzen dituztela. Udalek finantzatzen dute, gehienbat, hondartzak egoera eta baldintza egokietan egotea, erabiltzaile gehienak udalerrikoak ez badira ere, maiz izaten baitira Euskal Herrikoak edo atzeritarrak. Herri horietako asko, gainera, txikiak dira, aurrekontu zein diru iturri mugatuak dituzte eta hondartzen mantenuak gastu handia suposatzen die biztanleko.

Jakina da, gainera, sorospen zerbitzu horietan lanean ari diren langileen lan baldintzak ez direla berdinak herri herri, eta ez dutela beti lanaren duintasunik bermatzen.

Egoera hori aintzat hartuta, ondorengo mozioa aurkezten dugu udalbatzarrak aztertu eta, hala badagokio, onartu dezan:

1. Zumaia Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen dugun udalokin elkarlanean, beharrezko kudeaketa egin dezala, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak aldundiak kudea ditzan.
2. Zumaia Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzen sorospen zerbitzua udalek kudeatzen duten bitartean, diru laguntza lerro bat ireki dezala horien %100ko finantziazioan laguntzeko.

| | | |
|---|---|--|
| Dokumentu kod./Cod. Documento | 2019IAKU0012-A19/8815 | |
| Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAA46DNT.D6ub 000.0081.AAAA46DN.T.D6ub | |



Zumaia Udalak

2019IAKU0012-A19/8815

3. Zumaia udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzeko behar diren kontratu edota hitzarmenetan, 11/2014 Foru Araua ezartzeko. Horren bidez, foru sektore publikoko kontratazioan, erosketan publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak berma ditzan.
4. Zumaia udalak mozio honen berri emango die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

Zumaiian, 2019ko urriaren 28an..-

IÑAKI OSTOLAZA: Proposamena tratatzeko aldeko bozka?

Aldeko botoak: 17 boto (7 EAJ-PNV, 9 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da,

Aldeko botoak: 9 boto (9 EH BILDU)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 8 boto (7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

ERABAKIA: 1.- EH BILDU, udal taldearen izenean aurkezturiko proposamena onartzen da . " Hondartzetako sorospen zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzeko eskatuz".

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

| | | |
|---|---|--|
| Dokumentu kod./Cod. Documento | 2019IAKU0012-A19/8815 | |
| Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAA46DNT.D6ub 000.0081.AAAA46DN.T.D6ub | |